

PROIEKTUAN AZTERTU BEHARREZKO ATALAK

- **BALIO PROPOSAMENA:**

Zer behar edo arazo konpontzen duzue?

Alde batetik, muxukoen kontaminazioa murrizten ahaleginduko gara. Gaur egun bizi dugun egoeratik, maskarilen erabilera beharrezkoa da gure egunerokotasunean, baina haien erabilgarritasuna galtzean, hondakin bihurtzen ditugu. Era kaltegarrian botatzerakoan, hainbat arazo ezberdin sortzen dira, esaterako, muxukoen sokak animalien habitateraino iristen dira eta horren ondorioz, animaliek haien organismoan arazoak izaten dituzte. Bestalde, muxukoek dituzten material desberdinak banatuko ditugu. Alde batetik, berrerabil daitezkeenak (alanbreak), hauek berrerabili egingo ditugu maskarila berriak sortzeko eta bestetik, ekologikoak direnak, hauek deskonposatuko ditugu konposta sortzeko helburuarekin. Azken finean, guk transmititu nahi duguna da maskarila batek erabilgarritasun gehiago izan ditzazkeela.

Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Diseinatutako makina hau makina txikia izango da (makina portatila), gurekin eramateko erraza. Horrez gain, uste dugu makina merkea izan beharko litzatekeela guztientzako eskuragarri izan dadin. Kutsadura guztion esku dago, beraz, kutsadura murrizten duen makina garesti bat sortzeak ez luke zentzurik izango, jendeak ez duelako erosiko eta eta maskarilak edozein tokitara botatzen jarraituko luketeelako inolako kontzientziarik gabe.